

UNIBERTSITATERAKO SARBIDE PROBA
25 URTETIK GORAKOENTZAT ETA 45 URTETIK GORAKOENTZAT

PROBA OROKORRA

2019ko PROBA



IRUZKIN

PROBA

ERANTZUNAK



Argibideak

Probaren iraupena: 45 minutu

Testu honetan oinarrituta, egizu testuaren ostean datorren jarduera

“Nerea dut izena eta ez naiz desgaitua”

“Nerea dut izena eta ez naiz desgaitua. Desgaitasun bat daukat, miopia dudana bezalaxe. Aurreiritzi zaharkituak azpimarratzen dituen hizkuntza daukagu, eta hizkuntzaren bidez estereotipoak eta balio-iritziak sor ditzakegu, besteengan eragiten duten pentsamenduak eta sentimenduak adierazten ditugulako. Ez dadila izan ezgaitasuna definitzen gaituena; ez sustantibizatu adjektiboa”.

Nerea Gabilondo da mintzo dena. 31 urte ditu eta kexu da, norbait ezagutzen duen aldiro galdetzen diotelako ea nola bukatu duen gurpildun aulkian, nahiz eta berak beste mila gauza izan kontatzeko. “Beti kontu bera azaltzeaz nekatuta, istorio fantastikoak asmatzen hasia naiz, horrela beste pertsonak bere jakin-mina asetzen du eta nik nire irudimena garatzen dut”.

“Normala” dela dio Gabilondok, “baina zer da normaltasuna? Klub prestigiotsu bat al da, non onartua izateko etiketa guztiek ez duten berdin balio? Etiketa batzuek beste batzuek baino pisu handiagoa dute, beharbada onartuago daude. Miopea normaltasunaren klubean sar daiteke, gurpildun aulkian doan pertsona ez”.

“Hizkuntzak dituen traba mentalak”

Inklusioa lortzeko bidean, hizkuntza eta hitzak funtsezko direla dio Gabilondok: “Desabantaila sozial batetik atera diren kolektibo guztiek kalte egiten zien hizkuntza aldatu behar izan dute lehenengo, hizkuntzak gure pentsamendua eta mundu-ikuskeraren determinatzen duelako. Hitz zaharkituak, okerrak edo desegokiak erabiltzen baditugu, irudi negatiboak betikotu eta pertsonak estigmatizatu ditzakegu. Kontzienteki egiten ez badugu ere, beharrezkoa da hizkuntzak dituen traba mental horiek ezabatzea”. Azken finean, “desgaitasunik ez duen pertsonak, gaitasuna al du lan, mugimendu, kirol... guztiak egiteko? Ezetz esango nuke”.

Normal izatea, egungo gizartearen fikzio handia

Ildo horretan, eta buruko gaitzen ikuspegitik, normaltasunaz hitz egin zigun Lucía Gricman psikologoak: “Nire irakasle batek esan zidan egungo gizartearen gauzarik larrienetakoa normaltasuna dela. Muga indartsua dago normal izatearen eta ez izatearen artean, hori da egungo gizartearen sortzen duen fikzio handia. Parte izatea edo ez, horra hor bizi dugun patologia kolektiboa(...). Azkenean denak gaude at, normal izan nahi eta inork ez duelako fikzio hori lortzen. Kanpoan geratu naizenean, zer egin beharko nuke, berriz ere normal izaten ahalegindu, ala nire ezberdintasunetik jokatzen ikasi?”.



Mikel Garcia Idiakez: <https://www.argia.eus/blogak/>



Irakurritakoa kontuan harturik, 25-30 lerroko testu bat idatziko duzu. Testuak, gutxienez, 200 hitz eduki behar ditu. (10 puntu)

Aukeratu bi gai hauetako bat:

- A. Gaur egungo gizarteak era guztietako desgaitasunen aurrean, desgaitasun fisikoak nahiz psikikoak, erakusten duen jokabidearen inguruko iritzia. "Normaltasunetik" at dauden guztiak baztertuak sentitzera eramaten dituen gizartean bizi gara. Zer eragin dute estereotipoek gure gizartean? Nola ikusten ditugu 'desberdinak direnak' normaltasunaren parametroen barruan sartzen ez direnak? Arrakastaren eta normaltasunaren estereotipoek agintzen dute gure gizartean...
- B. Zure iritzia azaldu honako gai honen inguruan: Zein litzateke desgaitasunak dituzten pertsonak gizartean txertatzeko bidea? Hizkuntza aipatzen du testuak. Nahikoa da zure iritziz? Zer besterik beharko litzateke?

Antolatu testua honako elementu hauekin:

- o Sarrera-paragrafoa
- o Zure ideiak garatzeko bi paragrafo
- o Azken paragrafoa, ondorioetarako.

Ez egin testuaren laburpena.

Adierazi zure iritzi pertsonala.

Gogoratu honako alderdi hauek hartuko direla kontuan testua zuzentzeko eta ebaluatzeko:

- o Testuaren egokitasuna (eskatutakoaren betetze-maila, testu-generoaren egitura, erregistroa...).
- o Ideien garapena eta koherentzia (ideiak elkarri lotuta, kontraesanik gabe adierazita ote dauden, errepikapenik gabe).
- o Perpausen eta paragrafoen arteko kohesioa (erreparatu puntuazio-zeinuei, esaldiaren barruko hitzen ordenari, testu antolatzaile eta lokailuei);
- o Testuaren zuzentasuna (morfosintaktikoa eta ortografikoa), egokitasuna eta lexiko eta egituren aberastasuna.



EBAZPENA IRUZKINA (2019ko maiatza)

EZAGUTZA ADIERAZLEAK

- 2.7. Ideiak planifikatzea, informazioa koherentziaz antolatuz.
- 1.5. Idatzizko testu egokiak, koherenteak, kohesionatuak eta zuzenak sortzea.
- 2.9. Hizkuntzaren arauak eta aukeratutako generoaren konbentzio formalak errespetatuz idatzizko testuak sortzea.
- 4.8. Jardun akademiko eta profesionalaren berezko komunikazio-trukeetan parte hartzea, iritzia adierazteko beharrezkoak diren baliabideak erabiliz

Testua zuzentzeko deskripzio banda sintetikoa:

8-10 puntu	<ul style="list-style-type: none"> • Eskatutakoari lotzen zaio (helburua, gaia, hitz kopurua...) • Erregistro egokia du. • Aukeratutako edukia esanguratsua da gaiaren garapenerako, ez dago errepikapenik eta gaiak aurrera egiten du. • Ideiak eta argudioak ondo garaturik daude eta elkarrekiko lotura dute. • Lokailuak, antolatzailek eta egitura sintaktikoak egokiak eta aberatsak dira. • Ia ez du akats morfoloikorik ezta ortografikorik ere.
7-8 puntu	<ul style="list-style-type: none"> • Eskatutakoari lotzen zaio. Erregistro egokia erabiltzen du. • Ideiak et argudioak garaturik daude eta elkarrekiko lotura dute. • Egitura sinpleen ondoan aberatsagoak ere erabiltzen ditu (menpekoak, lokailuak...). • Testuak ez du ia akatsik, baten bat baina ez sistematikoak eta ez dute ulermena eragozten.
5-6 puntu	<ul style="list-style-type: none"> • Zenbait akats sistematiko ditu edukian edo forman, Hala ere, akats horiek ez dute oztopatzen testua ulertzea. • Ideien arteko koherentzia eta kohesioan dituen gabeziek ez dute oztopatzen ulertzea. • Argudioak edo ideiak ez daude guztiz garatuak, batzuetan jauziak antzeman daitezke • Egitura sinpleak erabiltzen ditu oro har. • Ortografian eta puntuazioan akatsak daude baina ez oso larriak.
3-4 puntu	<ul style="list-style-type: none"> • Ez zaio eskatutakoari lotzen. • Ez du eskatutako hitz kopuru minimoa. • Ulergarritasuna oztopatzen duten ideien arteko jauziak, erreferentzia galtzea... • Egitura sinpleak erabiltzen dituen arren, hauetan ere akatsak antzematen dira. • Gabezia handi samarrak komunikazioari eta hizkuntzaren ezagutzari dagokienez. • Ortografian, arruntak diren hitzetan ere akats larriak.



1-2 puntu	<ul style="list-style-type: none"> • Eskatutakoari ez zaio lotzen. Hitz kopuru minimoa ez du bete. • Testua ulergaitza egiten duten akats sistematikoak ditu • Egitura sinpleak erabiltzen dituen arren, hauetan egiten dituen akatsak ulermena eragozten dute. • Komunikazioari eta hizkuntzari lotutako gabezia nabariak. • Oinarrizko akats gramatikal larriak egiten ditu: ergatiboa,
------------------	--

Taula honek jasotzen du deskripzio analitikoaren arabera puntuazioa:

	ADIERAZLEAK	Oso Ondo (0,7-1 ptu.)	Ondo (0,5-0,6 ptu.)	Gaizki (0,2- 0,4 ptu.)
Egokitasuna (2 puntu)	-Testuak hizkuntza- erregistro egokia du. Eskatutako hitz kopuru minimoa du			
	-Testua ondo egokitzen zaio proposatutako helburuari eta eskatutako testu generoari.			
Koherentzia eta kohesioa (4 puntu)	Egitura argia eta zehatza du: sarrera du eta ideia nagusiak paragrafotan daude antolatuta. Ondorioa ere adierazi du.			
	-Gaiari lotutako iritziak adierazten ditu. Informazio esanguratsua ematen du.-			
	-Ideiak elkarrekin lotuta daude eta lokailu eta testu antolatzaile egokiak erabiltzen ditu.			
	-Esaldien ordena egokia da eta izenordainak eta anaforak ondo erabiltzen ditu. Puntuazio zeinuak ere ondo erabiltzen ditu.			
Lexikoa, sintaxia morfologia eta ortografia (4 puntu)	-Lexiko egokia, zehatza eta aberatsa erabiltzen du, sinonimoak baliatzen ditu eta errepikapenak saihesten ditu.			
	-Arau morfologikoak betetzen ditu: deklinabidea, aditzaren denbora, aspektua eta komunztadura.			
	-Arau sintaktikoak betetzen ditu. Esaldien egitura zuzena eta egokia da.			
	-Ortografia arauak betetzen ditu.			
		PUNTU		